

Gure insomniozko enpresak funtziona dezan, hainbat langileren beharra izango dugu. Alde batetik, funtsezkoa da aditu talde bat edukitzea, loaren nahasmenean espezializatuak direnak eta insomnioarekin lotutako trastorno psikologikoak ebaluatu eta tratatu ditzaketenak, hau da, 3 terapeuta profesional, kimikoak ez diren produktuen, hau da naturalen ezagutza duena eta psikologia ikasketak dituena. Hauen laguntzarekin gure enpresaren xede nagusia burutuko dugu, hau da, insomnioa eta harekin erlazionatutako arazoak modu osasuntsu eta naturalean konpontzea. Beste aldetik, teknologia-hornitzaileak ere behar ditugu gure kontsulta birtualak eta sortu dugun aplikazioa aurrera eramateko, insomniorako terapia digitalak babesten dituztenak, birusak ez sartzeko, baita gure web orriaren kontrola hartzeko xedearekin ere. Bukatzeko, beste bi idazkari izango dira ekonomian gradua dutenak diru kontuak eraman ahal izateko, eta sesioen erreserba guztietaz arduratzeko ere bai. Honenbestez, gure enpresako diru sarrerak zein gastuak kontrolpean geratzeko dira eta erreserba guztiak ordenean daudela ziurtatuko dugu.